

teatro + una ciudad + títeres + dibujos + un gallo =

HAY UN
GALLO
EN TU
TEJADO



para toda la familia a partir de 4 años

www.tiviriquiri.com

**Txosten
pedagogikoa**



OILAR BAT DAGO ZURE TEILATU GAINEAN diziplina anitzeko ikuskizun bat da, antzerkia, txotxongiloak, arte plastikoa eta teknologia berriak uztartzen dituen.

Hiru oihalen gainean benetako pertsonaiak marrazki bizidunetako pertsonaiekin batera arituko dira, publiko guztiarentzako joko eszeniko zirraragarria sortuz.

HAURRENTZAKO IKUSKIZUN ONENAREN SARIA TOLOSAKO TITIRIJAI JAIALDIAN, 2015

Oilar bat hiri bateko eraikuntza bateko teilatu batean aurkitzen da harrapatuta. Beheko bizilagunak, behiaren marruaren antza duen kukurrukua norik egiten duen jakin-minaz, haren kukurrukuaren jatorriaz galdetzen dio. Jarraian istorioa hasiko da eta behi pinpirinez betetako baserri bat, oilo erruleen eguneroko bizitza ezagutuko ditugu eta baita Laia behi arruntarena ere...

Umore eta bertsoen bitartez istorio hau makaltzen joango gara eta ezagutuko ditugu hiri bat, zezen maitemindu bat eta teilatu baten gainean dagoen oilar nahigabetu bat, hiritik ateratzen lagundu eta bere etxera gidatuko duen norbaiten zain dagoena.

Hiria, Pedro Mañas-en poetaren olerkietan oinarrituta dago.

Bi motatako ariketetan oinarrituriko koadernoak prestatu dugu:

-Antzerkiera joan baino lehen egiteko ariketak

-Antzerkiera joan eta gero egiteko ariketak

Honekin, haurrek antzerkiaren bidaiaz gozatu eta gure laguntzarekin antzezlanak hobeto ulertzea gustatuko litzaiguke.



Interesgarria iruditzen zaigu antzokira joan aurretik hurrek “Oilar bat dago zure teilatuan” oinarrিতта dagoen bi liburua ezagutzea:

- “Ciudad laberinto” poema liburua, Kalandraka-k editatua eta Pedro Mañas-ek idatzia.

- “Arrautza jarri zuen behia” ipuina, Andy Cutbill-ek idatzia

Olerkiekin lan egiten dugu, txikitatik poesia barneratu dezaten.

Horregatik, olerkiekin lan egitea da gure proposamena.

Gure protagonista bizi den hiria deskribatuko dugu.

Gure protagonista Oilarrak, behi batek bezala kantatzen du...muuuuuuu

Nola egiten du animalia bakoitzak?

Lehoia	Ahatea	Txerria	Txakurra
Oilarra	Gorila	Zezena	Behia
Tigrea	Ardia	Tximua	

Desberdintasunen jolasa

Bi zerrenda egingo ditugu:

Hirian dauden gauzena

Mendian dauden gauzena

Ume guztiek hiri bat imajinatuko dute, mendia imajinatuko dute.

Ume bakoitzak hirian topatzen duen zerbait eta mendian topatzen duen zerbait izendatuko du.

Mendia eta hiria marraztuko ditugu.



Hirian, poesia

Olerki zati hauekin lan egitea proposatzen dizuegu:

Bazen behin hiri bat, eta bertan oilar bat bizi zen.

Oilarrak kantatzen zuen... behi batek bezala.

Eta hasteko behar duguna hiri bat da. (Horrela hasten da ikuskizuna)

Mapa bat marraztu dut

nire liburuxkaren azal-hegalean

mapa txiki honetan

hiri handi bat geldi ezinean

Korapilatzen dira kaleak, ihes egiten du jendeak

eta autoak dabilta nire mapa gainean.

Tolestu eta zabaltzen dut

Zimurtu eta luzatzen dut

Begiratu eta berriz begiratzen dut

Eta aldiro leku desberdin bat ikusten dut:

Inurri hiria

Amaraun hiria

Zabortegi hiria

Labirinto hiria



Inurriak galburuak ari dira eramaten
Ez diote elkarri begiratzen, ez dira ilaratik ateratzen.
Jendeak motxila darama bizkarretik zintzilik
Inork ez du irribarrerik, ezta opatzeko egun onik.
Hirian mila auzo daude

Auzo bakoitzean ehun kale daude
Kale bakoitzean hamar etxe daude
Eta etxe bakoitzean gizon bat dago
Eta gizon honi zer gertatzen zaio?
Gertatzen zaio ez dutela ezagutzen ez plazan ez bere kalean.
Gertatzen zaio ez duela ez patiorik ez balkoirik ez leihorik bere etxean.
Gertatzen zaio ez zaiola ezertxo ere gertatzen bizi denari bere ate aurrean.




Olerki bat sortzea proposatzen dizuegu, hitz batetik abiatuta, adibidez (udaberria, maitasuna, behia, oilarra,... antzezlanaren izenburua “Oilar bat dago zure teilatuan”).

Ilustrazioak: Olerkien irakurketetatik ilustrazioak atera ditzakezue.

Errimekin jolastu: Errima bera duten hitzen zerrenda bat egin, gero aldatu, ordezkatu eta emaitzarekin jolasteko. Bertso bakoitzaren azken hitza zerrendako hitz batekin trukatu daiteke, olerkia guztiz eraldatu arte.

Musikatuz: Olerkiari musika jarri diezaiokezue, ezaguna zaizuen melodia bat hartuz edo berri bat asmatuz. Perkusioarekin lagundu daiteke, edo eskura dituzuen instrumentuekin.

Bokalen jolasa: Olerkia hainbat ikasleri banatu eta bokal ezberdinekin errezitatu...



Mendian, koloreak

“Oilar bat dago zure teilatuan” antzezlanak inoiz arrautza bat errun ez duen behiaren istorioa kontatzen digu, Laia behiarena, zeinek autoestimu baxua duen.

Antzezlana ikusi eta gero interesgarria litzateke eztabaida bat egitea.

Honako galdera hauek erabili ditzakezue:

Zein da Laia behiaren arazoa?

Zer iruditzen zaizue oiloen kezka eta irtenbidea?

Nola ikusten duzue gainerako behien jarrera?

Ondo iruditzen zaizue Laiak hartzen duen jarrera, hau da, arrautza berak jarri duela bukaeraraino mantentzea?

Oilarrak zergatik kantatzen du behi batek bezala?

Zergatik babesten da teilatu gainean?

Nork salbatzen du Oilarra eta baserrira laguntzen?



Azkenik, proposatzen dizuegu Oilarra eta Zezena baserrira iristen diren momentua marraztea, baita hori ikustean behiei geratzen zaien aurpegia ere.



Eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen, honekin guztiarekin disfrutatu izana espero dugu, guk ere sorkuntzan disfrutatu dugun bezala. Eta nola ez, gogorarazi nahi genuke, hau guztia, ahal dugun heinean, haurrek merezi duten haurtzaroaz gozaten laguntzeko egiten dugula.

www.titirigui.com

666 40 52 82

